

Txomin Arratibel

(1956-2015)

BEATRIZ ZABALONDO

Txomin Arratibel joan zaigu, martxoan. Gaixotasun txar batek eraman zigun betiko. Aspaldiko urteetan ez nuen ikusi, berrikiretan izan ez, eta ustekabean harrapatu ninduen haren heriotzak.

Laurogeiko hamarkadan ezagutu genuen elkar; Euskal Telebistaren hasierako urteak ziren, bikoizketarako gidoiak atontzen aritzen ginen K2000n. Dena zegoen egiteko, eta ausartu ere ausartzen ginen hitz hau sartzen eta egitura hura moldatzten, edo erdal esaerak ahalik eta taxu euskarazkoenera aldatzen. Kanpoko film eta telesailetan euskal sena jartzea zen gure tema, atzerritarren espazio-denboren neurrietara errendituta, gainera. A zer-nolako buruhausteak! Erdal berbak kendu, eta nola osatu euskarazkoekin elkarritzetak, euskal doinua izan zeztaten... Jatorri arrotzeko filmak nola landu, etxeikoen belarrietara gozo-gozo gerta ziutezen. Alegia, euskal musikan nola eman munduko sinfoniatik, batere desafinatu gabe. Euskararen lagun gaiztoenei, erdarestatik isil-misilka isurtzen zirenei/zitzazkigunei, ahalik eta lasterren antzeman eta nola eman

alto. Telebista publikotik gure lana zuzentzen zigutenei nola jakinarazi badirela euskara asko baina bat dela dena, euskara izañez gero.

Txomin ez zen makalena, ezta azkena ere, obratze horietan. Askoren adinako beilarri fina bazuen hark. Hizkuntzaren sena ere bai, eta gogo faltarik ez, sekula, gidoi bat hobetzeko edo pertsonaia bat zegokion ego-kieraz janzteko.

Urrutira gabe, urte txarrak etorri ziren bikoizketarako, laurogeita hamarreko hamaraldi hasieran, eta askok beste lanbide batzuetara jo behar izan genuen, hileko soldatua irabaziko baguen. Txomin ere, min handiz, beste itzulpen eta lanketa batzuetan hasi zen; hiztegigintzan, besteak beste. Morrisekin eskuz esku aritu zen ingelesa-euskara hiztegian. Inon ez da egongo esanda, ez idatzita, zer erantzukizunekin heldu zion lan eskerga hari. Itzultzaile oso ona zen, bai; eta, are gehiago, langile fin-fina.

Gero Mixerren ere aritu zen berriro, ETBrako bikoizketa-gidoiak prestatzen. Ez alferrik! Lan-baldintzak negargarri bilaka-

tuak ziren jada, eta Txominek duintasunaren aldeko hautua egin zuen. Beharrerako prest egotea zen gauza bat, eta, beste bat, oinazpian inork zapalduta bizi beharko zuela onartzea. Hark ez zuen berehalakoan etsiko! Ez, behintzat, egoera iraultzeko ahaleginik egin gabe.

Ordurako, familia koskorra ere hazten zohoan. Kezka handiz bizi zuen seme-alaben euskarazko heziketa, eta ardurak hartzet zuen haien etorkizuna irudikatzean. Euskal Herriaren jite-aldaketari uzkur begiratzen

sumatu nuen, eta iragan sasoientegatik malenkoniatsu.

Halabeharrez, batek jakin zergatik eta nola, gure bideak banandu egin ziren. Betiko banandu ere. Asko uste barik, gogora ekarri ditut nire barne mintzo batzuk, oroitzapenez jantziak. Aurrerantzean, hitzek emango diete bizia sentimenduei: bihotzean gordeak genituenak betiko iraunazko ditugu.

Duin bizitzen jakin eta duin joan zen Txomin Arratibeli, gorazarrez.

Resumen

Txomin Arratibel, miembro de EIZIE, falleció en marzo de 2015, a causa de una grave enfermedad. Comenzó su andadura traduciendo y adaptando guiones en los primeros años de ETB. En una época en la que todo estaba por hacer, fue una de las personas que se esforzó en conseguir que el euskara de películas y teleseries fuera lo más natural posible. Cuando ese tipo de trabajo fue escaseando, al igual que muchas otras personas, se dedicó, con harto dolor, a otro tipo de tareas relacionadas con la traducción, como por ejemplo el diccionario Morris euskera-inglés. En la asociación siempre fue un incansable defensor de los profesionales de la traducción audiovisual.

Résumé

Txomin Arratibel, membre de l'association EIZIE, est décédé en mars 2015 suite à une grave maladie. Il entama sa carrière professionnelle en traduisant et en adaptant des scénarios pour la télévision basque ETB, à ses débuts. À une époque où tout était à faire, il fut l'un de ceux qui s'employa à ce que l'euskara des films et des séries télévisées fût le plus naturel possible. Mais, lorsque ce genre de travail se fit plus rare, il dut se résigner, comme beaucoup d'autres, à réaliser d'autres tâches liées à la traduction, telles que, par exemple, l'élaboration du dictionnaire Morris euskara-anglais. Au sein de notre association, il fut un ardent défenseur des professionnels de la traduction audiovisuelle.

Abstract

Txomin Arratibel, a member of EIZIE, died in March of 2015 after a serious illness. He began his career translating and adapting scripts for dubbing in the early years of ETB. In an era in which there was a great deal yet to be done, Arratibel was among those who made every effort to ensure that the Basque in movies and television series would be as natural as possible. Beginning in 1990, when this type of work began to get scarce, he worked hard in devoting himself, as many other people did, to other tasks associated with translation, such as the Morris Basque-English dictionary. Within EIZIE, he was always an unflagging champion of professionals in audiovisual translation.

